

**2024KO EKAINAREN 25EAN EGINDAKO  
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK**

**Alkate-Lehendakaria**

Gorka Murua Macuso

**Zinegotziak**

**BERTARATUAK**

Olaia Nieto Legarra  
Mikel Iturbe Saizar  
Noelia Lataburu Ortiz  
Ioritz Lazcano Aranalde  
Gorka Sagarna Larrañaga  
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga  
Begoña Tolosa Mendia

**BERTARATU EZ DIRENAK**

Idoia Garayalde Goicoechea

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2024ko ekainaren 25ean arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

Udalbatza audio sistema bidez grabatua izan da, grabaziotik ateratako fitxategi bat dago, idazkariak idatzitako aktarekin batera joango dena.

**1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:**

\*2024-05-28ko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

## 2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2024KO MAIATZAREN 22TIK 2024KO EKAINAREN 18RA (2024/152 - 2024/175).

Alkatetzak 2024ko maiatzaren 22tik 2024ko ekainaren 18ra bitartean (2024/152 - 2024/175) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## 3.- 2025EKO UDALERRIKO JAI EGUNA IRAILAK 29 IZENDATZEN DUEN 164/2024 ALKATE DEKRETUA BERRESTEA.

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du 2025eko irailaren 29a egun baliogabetzat deklaratzeko dekretua berritsi behar dela 2025 EAeko langileen urteko jaiegun egutegia zehazteko.



Esp.zk.:2024IDAZ0026

## ALKATE DEKRETUA

**GORKA MURUA MACUSO** jaunak, Irurako Udaleko alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1. atalean xedatutakoaren arabera, honako hau:

### IKUSIRIK

2024ko maiatzaren 8an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian apirilaren 23ko 49/2024 dekretua argitaratu zen, bertan EAeko langileen 2025. urteko jaiegunen egutegia onartzen zen.

2025. urteko San Migel eguna irailaren 29a astelehena denez, herriko jaieguna egun hori izatea.

### ERABAKI DUT

**LEHENENGOA:** 2025ko irailaren 29a egun baliogabetzat deklaratzeko. Hori horrela, Irurako Udalaren administrazioarekin zerikusia duen eperen bat, obligazioen bat edo eskubideren bat esandako egun horietako batean jausiko balitz, epemuga hurrengo egun balioduna izango da.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri Udaltzari ematea.

**HIRUGARREN:** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, Dekretu hau izenpetzen dut.

Gorka Murua Macuso  
Alkateak

Nire aurrean  
Irantzu Arrizabalaga Gainza  
Idazkariak

**BOZKETA.- PROPOSAMENA AHO BATEZ ONARTU DA.**

#### **4.- ONARTZEA AMETSA PILOTA ELKARTEAREKIN HITZARMENA IZENPETZEA, VI. SAN MIGEL XARE IREKIA, ETA I. GAZTETXOAK XARE IREKIA TXAPELKETAK ANTOLATZEKO.**

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du, aurten Parisko Olinpiar jokoak direla eta partehartzaile gutxiago egongo dela, eta txapelketan bikote mistoak partehartuko dutela. Jarraian bozketara pasa dira zinegotziak.

### **KULTURA BATZORDEAREN PROPOSAMENA**

<u>AKTA ZENB.</u>	<u>ORRIALDEA</u>	<u>DATA</u>	<u>GAIAK:</u> 3.- Ametsa Pilota Elkartearekin hitzarmena izenpetzea, VI. San Migel Xare irekia, eta I. Gaztetxoak Xare irekia txapelketak antolatzeke
2024/06	3/1	2024-06-18	

**Kultura batzordeak, 2024ko ekainaren 18an eginiko bileran gai hau aztertu du:**

#### **3.- Onartzea Ametsa Pilota Elkartearekin hitzarmena izenpetzea, VI. San Migel Xare irekia, eta I. Gaztetxoak Xare irekia txapelketak antolatzeke.**

Iruran, 2024ko Ekainaren 19an

##### **BILDURIK**

Alde batetik, Gorka Murua Macuso, 44142319Y N.A.N. zenbakiarekin eta P2005000A IFK zenbakia duen Irurako Udalaren ordezkaria, San Migel Plaza 1, Irura herrian helbidea duena. Aurrerantzean UDALA deituko dena.

Bestetik, Mikel Uzkudun Olano 15909555H N.A.N. zenbakiarekin eta G20416079 IFK zenbakia duen Ametsa Pilota Elkarteko (APEL) ordezkaria Zilar kalea z/g, Irura herrian helbidea duena. Aurrerantzean APEL deituko dena.

Bi aldeek, daukaten ordezkartzan, hitzarmen hau sinatu eta hurrengo klausulak betetzeko gaitasuna aitortzen diote elkarri.

Biak ekintza hau burutzeko ahalmen osoa onartzen dute.

##### **KLAUSULAK**

**LEHENA.-** APEL-k, konpromisoa hartzen du VI. San Migel Xare irekia, eta I. Gaztetxoak Xare irekia txapelketak antolatzeke. Ekintza horiek burutzeko behar diren kirolariak gonbidatu eta beharrezkoak diren gainontzeko ekintza-bideak ere bere gain hartu beharko dituelarik.

**BIGARRENA.-** Udal honek bi xare txapelketa horiek eragindako gastuak finantzatzen laguntzeko 3.500€ emango dizkio APEL-i.

Gastuak ondorengo behar eta kontzeptuei dagozkienak izango dira:

-Pilotarien bidaia-dietak txapelketako jokalarien bidaietakoak.

-Sariak dirutan (Txapeldunak eta txapeldun ordeak).

-Txapelak eta trofeoak.

-Pilotak (txapelketetan erabilitakoak).

-Partidetako freskagarriak eta askariak.

Dirulaguntzaz gain, finalen egunean egongo den herri-bazkarian gonbidatuta parte hartuko duten pilotari eta antolatzaileen txartelak udalak ordainduko ditu.

**HIRUGARRENA.-** Udal honek aipatutako zenbatekoaren %70a ordainduko dio APEL-i txapelketa hasitakoan eta gainerako %30a, gastuen eta sarreraren balantzea aurkeztutakoan.

**LAUGARRENA.-** HIZKUNTZA BETEBEHARRAK: APEL-k, udalaren hizkuntza jarduera arautzeko planen arabera jokatu du. Beraz, txapelketak irauten duen bitartean herritarrekin dituen ahozko harremanak euskaraz gauzatuko ditu. Txapelketen berri eman ahal izateko herritarren esku jartzan dituen agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskara hutsez emango ditu ezagutzera. Salbuespen modura, elebitan argitaratu ahal izango ditu, betiere, euskara lehenetsita eta udalak aldeztu aurretik adostasuna emanda. APEL-ko ordezkariak udalarekin ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dituzte.

**BOSTGARRENA.-** Halaber, bete beharko dituzte Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 25. artikuluan xedatutako baldintzak eta haien artean: APEL-k, genero-ikuspegia kontutan hartu beharko du ondorengoak betez:

-Txapelketak sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agiriak edukitan hizkuntzaren eta

irudien erabilera ez-sexista egin beharko du.

-Bermatu beharko du, jokalaria guztiak aukera berdina edukitzea partidak jokatzeko sexuaren araberako bereizketarik egin gabe. Gainera, ez du onartuko jokalarien arteko genero bereizketarik.

-Ez du sortuko sexuagatiko bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

-Emakumeen partehartzea ziurtatuko duen txapelketa bat antolatu beharko du..

**SEIGARRENA.-**-Udal honek APEL-i lagako dizkio, trinketeko kantxa eta aldagelak, bi aldeek adostutako egutegi eta ordutegian erabiltzeko, adierazitako ekintza burutzen duen bitartean.

**ZAZPIGARRENA.-** Irurako Udalak, administrazio publiko eskudunei datu-bitartekaritzako plataforma bidez (NISAE) edo bitarteko telematikoen bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elkar eragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekota den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administrazio emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarri, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Irurako Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu, dirulaguntza jaso ahal izateko, administrazio publiko eskudunei datu-bitartekaritzako plataforma bidez (NISAE) edo bitarteko telematikoen bidez:

-Nortasunaren egiaztagiria.

-Legearen 13. Artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.

-Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duten ziurtagiriak.

-Jardueraren memoria eta dokumentazioa.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

Hitzarmena sinatzeko unean elkarteak ez du zorrik izango Irurako Udalarekin, nahiz eta honi dagokionez, ez den egiaztagiririk aurkeztu behar. Bestalde, dirulaguntza ordaintzeko unean udalarekin zorra izanez gero, ez da dirulaguntzarik emango.

Aurkeztutako agiriak osagabeak direla edo oinarrietan ezarritako baldintzak ez dituztela betetzen egiaztatzen bada, interesatuari dei egingo zaio hamar laneguneko epean akatsak zuzen ditzan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio hala egingo ez balu, eskaria baliogabetua geratuko dela eta besterik gabe artxibatu egingo dela, indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Nolanahi ere, eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal izango zaie eskatutako dirulaguntza behar bezala baloratu ahal izateko.

**ZORTZIGARRENA.-** APEL-k ez badu hitzarmena betetzen, aurreikusitako laguntza indargabetzea erakarriko du, eta hala badagokio, kontuan harturik zertan ez den betetzen eta hitzarmen honen xedea zein den, udalari emandako dirulaguntzaren guztizkoa edo zati bat itzuli beharko dio.

**BEDERATZIGARRENA.-** Hitzarmen honetan xedatuta ez dagoen edozertarako, azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta Irurako Udaleko diru-laguntzei buruzko udal ordenantza bete beharko da.

**HAMARGARRENA.-** Honako hitzarmen hau, Irurako Udalak ekainaren 25eko osoko bilkuran onartuko du.

Eta adostasunaren adierazgarri bi aldeek sinatzen dute ale bikoitzean eta ondorio bakarrerako igortzen den agiri hau, aleetako bat APEL-i ematen zaiolarik, bestea gorporazio honek jasoz, IRURAKO UDALA

Kultura teknikaria  
(Alex Lasa)

AMETSA PILOTA ELKARTEA  
O.E.(Idoia Garaialde)  
Kultura batzordeburua

**BOZKETA.- PROPOSAMENA AHO BATEZ ONARTU DA.**

## 5.- GALDE-ERREGUAK

- Alkateak hartu du hitza eta adierazi du Ehbilduk eta EAJk adostutako adierazpen bat irakurri nahi dutela ekainaren 28ko LGTBI kolektiboaren, Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren aldeko Nazioarteko Egunarekin bat egiteko.

Gorka Sagarnak irakurri du adierazpena, honela dio:

**Ekainaren 28an, LGTBI kolektiboaren, Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren aldeko Nazioarteko Egunean**, aniztasunetik, eskubide eta bizikidetzarekin dugun konpromisoa berresten dugu, eta kolektibo honen eskubide eta askatasunen aitortzan lortutako aurrerapenak ospatzen ditugu. Halaber, egun hau ez da ospakizuna bakarrik, egindako bidea eta oraindik benetako berdintasuna lortzeko egin behar den lana gogorarazteko ere bada.

Berindultik, Eusko Jaurlaritzaren LGTBI kolektiboari informazioa eta laguntza emateko zerbitzu publikotik, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu sexu-askapenaren aldeko borrokaren alde ahaleginak batu dituzten pertsona eta erakunde guztiei. Bere dedikazioari, konpromisoari eta ausardiari esker, gaur lorpen garrantzitsuak ospa ditzazkegu giza eskubideen eta eskubide sozialen arloan. Pertsona horiek, beren eguneroko lanarekin, funtsezko zutabea izaten jarraitzen dute gizartearen sentsibilizatzeko, kontzientziazteko eta eraldatzeko, eta ingurune inklusiboagoa eta errespetuzkoagoa sortzen laguntzen dute.

Hala ere, pertsona guztien berdintasunean aurrerapen ukaezinak egin diren arren, oraindik diskurtso LGTBIfobikoen albiste kezagarriak iristen dira, lortutako lorpenetan atzerakada bat dakartenak. Diskurtso horiek, gehienetan ezjakintasunetik eta gorrototik eratorriak, lortutako aurrerapenak desagerraraztea eta diskriminazioa irauteraztea bilatzen dute. Beraz, funtsezkoa da gizarte gisa erne eta tinko egotea eskuratutako eskubideen defentsaren alde; hala, sexu- eta genero-aniztasunarekiko duintasuna eta errespetua kaltetzeko edozein ahalegin baztertuko dugu.

Sexu- eta genero-aniztasunaren ikusgarritasunak gizarte gisa aurrera egiteko aukera ematen digu. Aniztasun hori aitortzea eta ospatzea, justizia-ekintza izateaz gain, komunitate gisa aberasteko aukera ere bada. Ez dugu inolako atzerapausorik onartuko kolektibo osoko ehunka lagunentzako ahaleginari esker lortutako eskubideetan. Irabazitako eskubide bakoitza gizarte bidezkoagoa eta gizatiarrago baterako urratsa da.

Horregatik guztiagatik, ekainaren 28ak are garrantzi handiagoa hartu du. Berindultik herritarrak ekintzetan parte hartzera animatzen jarraitzen dugu, gorroto-diskurtsoak eta giza eskubideen urraketak irrimo salatzeko. Funtsezkoa da guztiok injustiziaren aurka ozen mintzatzea, eta elkarrekin lan egitea diskriminazio mota oro desagerrarazteko. Ekintza kolektiboaren bidez bakarrik lortu dezakegu benetako aldaketa iraunkorra.

Badakigu sexu- eta genero-aniztasunaren onarpen soziala gero eta handiagoa dela, neurri batean euskal gizarte osoaren elkarlanari esker. Lan hori funtsezkoa izan da armairurik gabe, loturarik gabe, aurreiritzirik gabe eta estigmatik gabe bizi ahal izateko, eta komunitatea eraikitzeke. Babeskeinu bakoitzak, ikusarazte-ekintza bakoitzak, mugimendu hori indartzen eta aurrera jarraitzeko gure erabakia berresten laguntzen du.

Horrenbestez, sentsibilizazio eta aldarrikapen-ekitaldiekin bat egitera gonbidatzen zaituztegu: leihotatik eta balkoietatik kolore anitzeko banderak zintzilikatu. Keinu txiki baina esanguratsu hori elkartasunaren eta babesaren erakusgarri da, eta agerian uzten du gaur aniztasunaren aldeko borroka eguna dela. Astintzen dagoen bandera bakoitza erresistentziaren eta itxaropenaren sinboloa da, atzera egiteko prest ez gaudela dioen adierazpena, hain zuzen.

Azkenik, gogorarazi nahi dugu LGTBI eskubideen aldeko borroka guztion borroka dela. Ezin dugu onartu gorrotoa eta intolerantzia nagusitzea. Gaur, inoiz baino gehiago, gure aniztasunean bat egin behar dugu, pertsona guztiok duintasunez, errespetuz eta askatasunez bizi ahal izango garen etorkizun bat eraikitzeko.

#### **BOZKETA.- PROPOSAMENA AHO BATEZ ONARTU DA.**

- EAJ/PNVko Gorkak hartu du hitza eta berriz galdetu du ea nola dagoen Iruran ireki zen fruta dendaren jaruera baimena.

Alkateak adierazi du, aurkeztu beharreko dokumentazio guztia aurkeztu zuela eta prozedura dena eginda dagoela.

- EAJ/PNVko Gorkak hartu du hitza eta galdetu du 172/2024 Alkate dekretuan, 2.hamabostaldiko Maiatzeko fakturretan CUARHTOSET TALENT&TECHNOLOGY SL enpresaren 1.647,25€ko gastua dagoela eta zer den jakin nahiko luketela

Alkateak adierazi du, nominak egiteko zerbitzua azpikontratatu dela, udalak, hilabete-ro nominak egiten eta ematen dituen arazoak konpontzen denbora asko pasatzen dela, langile askoren gora beherak direla eta, gainera ekonomikoki errentegarraigoa dela udalarentzat.

Idazkariak gaineratu du, enpresa honek udalak erabiltzen duen aplikazioa erabiltzen duela, eta arazoak konpontzeko asistentzia ere beraiek ematen dutela.

Gainera, Aldundiko kontratazio zentraletik esleituko dela etorkizun motx batean eta udalak esleipenean partehartzeko asmoa daukala.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:15etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**